

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Kanpezun enplegua sustatzeko dirulaguntzen deialdia. 2026.urtea

BDNS(Identif.): 927981.

Diru-laguntza orokorreko buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/927981>).

KANPEZUN ENPLEGUA SUSTATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA 2026

Lehenengoa. Onuradunak

Kanpezuko udalerrian dauden pertsonak, enpresek edo haien sukurtsalek jaso ahal izango dituzte kontratazioagatik pizgarriak, bia eta, egoitza soziala udalerritik kanpo izanda ere, 2026. urtean udalerraren barruan noizean behin edo aldizka edozein jarduera edo lan egiten dutenek ere.

Bigarrena. Helburua

Kanpezuko udalerrian erroldatutako pertsona langabe eta ekintzaile autonomoen laneratzea eta gizarteratzea sustatzea da oinarri hauetan araututako laguntzen xedea, eta, horretarako, pertsona horien kontratazioa edo norberaren konturako ezarpena sustatzeko dirulaguntzen ezarpena arautuko da.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

2017ko irailaren 12an Osoko Bilkurak onartutako Ordenantza. (ALHAO 2. Zk., 2018ko urtarriaren 5ekoa)

Laugarrena. Zenbatekoa

1. Honako hauek lagunduko dira diruz, baldin eta enpresako plantilla osoa handitzen badute kontratazio berria egin aurreko 6 hilabeteetan zegoenaren aldean:

a) Iraupen mugagabeko kontratuak. Aldizkako finkoak ez dira sartzen: 1.500,00 euro.

b) Langileen Estatutuaren Legearen testuategia onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 15.1. artikulua a) eta b) letretan ezarritako kontratuak, gutxienez 12 hilabeteko iraupena dutenak, salbu eta b) apartatu horretako kontratuetan, sektoreko hitzarmen kolektiboak gutxienezko iraupena baimentzen ez duenean, hitzarmen horretan ezarritakoa izango da, eta, nolahi ere, gutxienez 6 hilabetekoa.

Plantilla osoaren ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko bitarteko kontratua duten langileak.

Kontratu horiek gutxienez urtebeteko iraupena badute, 750,00 euroko dirulaguntza emango da.

Kontratuaren iraupena gutxienez sei hilabetekoa bada, dirulaguntza 350,00 eurokoa izango da.

Zenbatekoa horiek ehuneko 20 handituko dira, baldin eta inoiz enplegurik lortu ez duten 30 urtetik beherakoak, iraupen luzeko langabeak (12 hilabete enplegu- eskatzaile gisa inskribatuta) edo langabeziatik datozen 55 urtetik gorakoa kontratatzen badira.

Ehuneko horiek ezin dira elkarren artean metatu.

Ehuneko horiei ehuneko 20a gehituko eta metatuko zaie kontratatutako pertsona emakumea bada.

2. Autonomoak badira, 1.500,00 euroko dirulaguntza emango da, eta aurreko paragrafoan jasotako ehunekoekin handituko da, baldin eta kolektibo horietakoren batean sartuta badaude.

3. Lanaldi partzialeko kontratuetan, lanaldi osoko langile batean lanaldiaren ehuneko 50eko gutxieneko iraupenarekin, aurreko pizgarriak benetako lan-denboraren proportzioan hainbatuko dira.

4. Laguntza horiek gehienez ere 3 kontrataziotara mugatuko dira enpresa eta urte bakoitzeko, horien dedikazio-denbora edozein dela ere.

Dirulaguntza bat baino ez da emango pertsona bera kontratatzeagatik, eskaera enpresa batek baino gehiagok egin arren.

Autonomoen kasuan, eskaera bakoitzeko IFZ baten gehieneko dirulaguntza baino ez da emango.

5. Arestian aipatutako kontratu-moten izendapenak dagokion urteko deialdia onartzen den unean indarrean dagoen lan-araudiaren mende egongo dira.

6. Eman beharreko eskabideek laguntzetara bideratutako guztizko zenbatekoa (2.000,00 euro) gainditzen badute, zenbateko hori proportzionalki banatuko da onuradunen artean.

Bostgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskaerak, aurkeztu beharreko dokumentazioarekin batera, kontratazioa edo EJZn alta eman eta 3 hilabete igaro ondoren aurkeztuko dira, 6 hilabeteko epean.

2026ean egindako kontratuen kasuan, deialdi hau argitaratzen den unean aurreko paragrafoan ezarritako epeak amaituta badaude edo horretarako 15 egun natural baino gutxiago falta badira, epeak deialdia argitaratzen denetik hasiko dira zenbatzen, baina edozein kasutan, abenduaren 31 baino lehen.

Santikurutze Kanpezu, 2026ko irailaren 4a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO